

2. AKTA

2001eko otsailaren 8an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako hirian eta bertako Udaletxean, bi milako abenduaren lauean, lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren lehendakaritzan, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari Akzidentala bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Obdu Lorenzo de Dios a.
Ricardo del Pozo Gil de Albornoz j.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ouviaña jaun zinegotziak ez du ezin etorria adierazi.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea ospatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 12:45etan, ondoren Gaizerrendako puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta 1.a 01-01-22koa irakurri eta onartzea.

Atalburuko akta bertakoen kontsiderazioan jarririk Gobernu Batzordeak erabaki du bere osoan onartu eta dagokion Akta-liburuan transkribatzea.

2.- Udal enplegatuak egindako kilometro-kopurua.


Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea JOAN MARKOS ONEKA LABIANO udal-enplegatu jaunaren desplazamendu-gastuak, 2001eko urtarrilekoak, 31.248,- pezetakoak, indarreango E.F.A.P.E.B.A.E.-ko IV-6 Ebazpen iragankorrari buruzkoarenara, otsailaren 2ko 16/93 Dekretuko 14. artikuluaaren arabera, 868 km. x 36 pta./km-ko egitearen emaitza.

3.- Kontu-fakturen berri ematea: 12/00.

Gobernu Batzordeak erabaki du 12/00 zenbakia daraman kontu-fakturen erlazioa ontzat ematea, HAMAZAZPI MILIOI HIRUREHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMABOST (17.358.235,-) pezetakoa.

4.- San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide k. Hiri Area berrir urbanizatzeko obraren 1. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide k. Hiri Area berrir urbanizatzeko obraren 1. ziurtagiria”, Joan Karlos Lapazaran (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadore) Obra Zuzendari jaunek luzatua CONSTRUCCIONES



DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde HIRU MILIOI EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HAMALAU (3.168.314,-) pezetakoa. Hau guztia D-943/00 Disposamenduaren kargura.

5.- “Ulia etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea” obraren 3. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, aurrez Udal Aparejadorearen aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea “Ulia etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea” obraren 3. ziurtagiria, EDUARDO SATOSTEGI Obren Zuzendari jaunak CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde HAMAIIKA MILIOI ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST (11.822.935,-) pezetakoa. Hau guztia D-924/00 Disposamenduaren kargura.

6.- Oarsoaldeko Euskara Batzordearen 2001. urterako proiektua onartzea eta gastua onartzea.

Euskararen Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2001eko urtarrilaren 30ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Oarsoaldeko Euskara Batzordeak 2001. urterako proposaturiko proiektua onartzea eta baita Pasaiako Udalari dagokion %25eko gastua ere, hau da, 5.272.568,- pezetakoa.

BIGARREN.- Aipatu kantitatea A-2001 Baimenduaren kargura gauzatuko da.

HIRUGARREN.- Aipatu kantitatea Oarsoaldeko Euskara Batzordeak KUTXAko 2101.0060.00.0010.693141 kontu korrontean irekia daukan kontura transferituko da.


LAUGARREN.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea legezkiokkeen errekurtsioekin.

7.- Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoak aldatzea: 7/00 proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Departamenduko Arduradunak 2001eko urtarrilaren 29an Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Modifikazioei buruz aurkeztutako proposamenak, 7/00 zka. daraman proposamenari zinegotzien adostasunez, Gobernu Batzordak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Gobernu Batzorde honek 2001eko urtarrilaren 22ko Batzarraldian onartutako 7/00 zka. daraman proposamenari buruzko Laguntzak modifikatzea, espedientean agertzen diren



onuradunena, eman diren egoeren aldaketa dela eta, seinalatzen den onuradunari alta eman eta dagozkien espedienteetan seinalatzen diren onuradunen kantitateak anulatu eta modifikatuz.

BIGARREN.- Aipatu kantitateak Gizarte Larrialdiaren partidari sartuak izan daitezela.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzako Departamenduari ematea.

8.- Urbanizazio-ekimenentzako laguntzak.

A) Ikusirik KARMELE URTXULUTEGI LASA andreak Pasaia udalari honetako Bortalaborda 3 eta 5eko Jabekideen izenean egindako eskaera aipatu eraikinetan egindako obrak subentzionatzeko.

Ikusirik zerbitzu teknikoek 2001eko otsailaren 1ean emandako txostena esanez obrak amaituta daudela eta xuxen exekutatuak izan direla.

Egiaztaturik eskatzaileek Eraikuntza eta Obren gaineko Zerga jadanik ordaindua dutela, Gobernu Batzordeak Ekimen Urbanizatzaileei Laguntzak emateko kriterioak aplikatuz,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaia udalari honetako Bortalaborda kaleko 3 eta 5eko Jabekideei 100.000,- pezetako kantitatea ematea Ekimen Urbanizatzaileei Laguntza bezala.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsoekin.

B) Ikusirik ESTEBAN SAGARZAZU EGUZKIAGIRRE jaunak Pasaia udalari honetako San Joan kaleko 59ko Jabekideen izenean egindako eskaera aipatu eraikinetan egindako obrak subentzioa dela eta.


Ikusirik zerbitzu teknikoek 2001eko urtarrilaren 22an emandako txostena eta Hirigintzako Teknikariak 2001eko urtarrilaren 26an emandako ebazpena, esanez obrak amaituta daudela eta xuxen exekutatuak izan direla.

Egiaztaturik eskatzaileek Eraikuntza eta Obren gaineko Zerga jadanik ordaindua dutela, Gobernu Batzordeak Ekimen Urbanizatzaileei Laguntzak emateko kriterioak aplikatuz,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaia udalari honetako San Joan kaleko 59ko Jabekideei 107.400,- pezetako kantitatea ematea Ekimen Urbanizatzaileei Laguntza bezala.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsoekin.



9.- Obrak legeztatze eskara: Euskadi Etorbideko, 59-3. esk.

Ikusirik MIGUEL ANGEL ESTEVEZ CHANS jaunak formulaturiko obra txikien legalizazio-eskara Pasaia udalerrri honetako Euskadi etorbideko 59ko 3. pisoan eskuinean aurkitzen den etxebizitzaren Hegoaldeko fatxadan marroi koloreko aluminiozko kanpoaldeko hiru leiho-marko jartzea dela eta.

Ikusirik udal-zerbitzu teknikoen aurkako txostena eta Hirigintzako Teknikariak 2001eko urtarrilaren 31an luzatutako ebazpen proposamena.

Ikusirik 1976ko Zoru Legearen Testu Bateratuko 184. artikulua eta hurrengoak eta Pasaiako Hiri Arauetako 084. artikulua, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MIGUEL ANGEL ESTEVEZ CHANS jaunak formulaturiko obra txikien legalizazio-eskara Pasaia udalerrri honetako Euskadi etorbideko 59ko 3. pisoan eskuinean aurkitzen den etxebizitzaren Hegoaldeko fatxadan marroi koloreko aluminiozko kanpoaldeko hiru leiho-marko jartzea gaitzestea, 1976ko Zoru Legearen Testu Bateratuko 184. artikuluan eta hurrengoetan eta Pasaiako Hiri Arauetako 084. artikuluan oinarriturik (eraikineko jatorriko leihoen zureriaren kolorea).

BIGARREN.- Interesatuari errekeritzea Zoru Legeko 184.2 artikulua araberan BI HILABETE barruan obrak egokitu ditzala Hiri Arauak beteaz, zehazki, jarri duen zureriaren (leiho-markoen eta pertsiaren) dimentsioak, kolorea eta konfigurazio arkitektonikoa aurrekoen berdina izan daitezela.


HIRUGARREN.- Behin kolorea esandakoari egokiturik, obrak legalizatzeko eskaerarekin batera exijitzea leiho-markoen azken egoeraren argazkiak ekartzea eta baita pertsiarenak ere eta egindako obren aurrekontu zuzendua.

LAUGARREN.- Jakinaraztea seinalaturiko modifikazioak burutzen ez badira obrak interesatuaren kostura suntsitzea erabakiko dela, hau guztia aipatu arauko 184-3 artikulua araberan, Ordenantza Fiskalen modifikazio berriaren ondoren Udalak aurreko betebeharrak konpliztea errekerituko dion bakoitzean 25.000,- pezetan ordaintzearen kalterik gabe.

10.- Ondarezko erantzukizunei buruzko hainbat erreklamazio.

A) LOURDES MAIZTEGI GONZALEZ andreak formulaturiko erreklamazioa Morales Oliver kaleko 6an teilatutik SS-1132-BH ibilgailura teilak erortzeagatik.

Ikusirik LOURDES MAIZTEGI GONZALEZ andreak formulaturiko erreklamazioa Morales Oliver kaleko 6an teilatutik SS-1132-BH ibilgailura teilak erortzeagatik, teilatua udal jabetzakoa izanik, non agertzen den 35.970,- pezetako konponketaren txosten periziala.



Ikusirik Udaltzaingoaren 2000ko urtarrilaren 24ko txostena argazkidun erreportajearekin eta 2011eko otsailaren 5ekoa, non esaten den gertaeren lekuan aparkatzea galarazia dagoela, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LOURDES MAIZTEGI GONZÁLEZ andreak egindako erreklamazioa gaitzestea, zeren eta aipatu lekuan aparkatzea galarazia baitago, seinalizazioa behar bezala ikusten delarik, eta, beraz, eskatzaileak nahikoa interferitu du behar hainbat konturatu ahal izateko Administrazioaren funtzionamendua eta eragindako kaltearen artean lotura kausalik ez dagoela.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

B) JOAKIN TREZET MIRONES jaunak egindako kalte-erreklamazioa Pasai Donibaneko Pilotaleku plazan aurkitzen ziren hesiak haizeak botata ibilgailuan kalteak eragiteagatik.

Ikusirik JOAKIN TREZET MIRONES jaunak egindako erreklamazioa, non eskatzen duen 60.499,- pezetako kantitatea bere ibilgailuan eragindako kalteak konpontzeagatik Pasai Donibaneko Plazan bere ibilgailuaren kontra hesiek joaz.

Ikusirik Udaltzaingoaren txostena eta anpliazioa, kontuan izanik aipatu lekuan Santiago Plazako hirigintza obrak ari zela burutzen CONSTRUCCIONES OTEGI enpresa eta aipatu hesiak esandako obrako elementuak direla.


Ikusirik Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateratuko 97. artikulua, zeinen arabera kontratistaren obligazioa baita kontratua exekutatzeko beharturik hirugarrenei eragindako kalteak indemnitatzea, eta horretarako espedienteari ekin behar zaiolarik eta kontratistari entzun, Administrazioak esango du ea kontratatutako zeini dagokion kalteak ordaintzea.

Honela bada, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Kontratistari entzutea gertatuei buruz orain arteko aktuazioak trasladatuz, HAMAR EGUNEKO epean.

C) M^a LOURDES MARIEZKURRENA EZKURRA andreak egindako erreklamazioa JJ Otaegi plazako behebarruko garajearen eragindako kalteak direla eta, Udala iragazkaiztasun lanak egitearen ondorioz.



Espedientea ikusirik erabaki da kalteak egiaztatzea, zeren eta Lourdes Mariezkurrena andreak erreklamatzeko dituen kalteen dokumentazio grafikoa bakarrik baitago, ikusi kalteen zenbatekoa eta beren aurrekontua gero Udalak konpontzeko, hau guztia erabaki akabaila hartu aurretik.

11.- 33. zenbakia duen taxi-lizentzia eteteko asmoa dela eta, luzapena eskatzea.

Ikusirik JOSE LUIS KASTRESANA ROBLEDO jaunaren eskaera 33. zka. daraman taxi-lizentziaren suspentsioa urtebeterako luzatzeko.

Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Udal Batzorde Informatiboak 2001eko urtarrilaren 24ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Eskaera partzialki ontzat eman eta SEI HILABETEKO luzapena ematea lizentzia berreskuratzeko posibilitatea aztertu ahal izateko negoziazio edo akordio orokor baten bidez, non adostuko litzatekeen kalteordain bat Administrazio interesatuek ordainduko lutekeena eta Taxien Elkargoak berak.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

12.- 19. zenbakia duen taxi-lizentzia eteteko asmoa dela eta, luzapena eskatzea.

Ikusirik M^a JULIA FERNANDEZ ZARDAIN andrearen eskaera 19. zka. daraman taxi-lizentziaren suspentsioa urtebeterako luzatzeko.


Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Udal batzorde Informatiboak 2001eko urtarrilaren 24ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Eskaera partzialki ontzat eman eta SEI HILABETEKO luzapena ematea lizentzia berreskuratzeko posibilitatea aztertu ahal izateko negoziazio edo akordio orokor baten bidez, non adostuko litzatekeen kalteordain bat Administrazio interesatuek ordainduko lutekeena eta Taxien Elkargoak berak.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

13.- 2001. urteko Inauterien gastuetarako zinegotzi-ordezkariei aurrerapenak ematea.



Ikusirik Alkatezak 2001eko urtarrilaren 6an egindako proposamena 2001. urteko Inauterien gastuetarako pasaitar barrutietako Jai Batzordeei aurrerapenak emateko, Gobernu Batzordeak

ERABAKI DU

Pasai San Pedro, Pasai Antxo, Pasai Donibane eta Trintxerpeko barrutietako Jai Batzordeei bakoitzari 315.000,- pezetako kantitatea abonatzea.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-27/01 Baimenduaren kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:00etan batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.